

HIRUGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C1 maila

ENTZUMEN PROBA

[A eredua]

1. ABIZENA	NAN zk.
2. ABIZENA	AZTERKETA EGUNA
IZENA	AZTERKETA TOKIA

	PROBAREN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNUAZIOA (GUTXIENEZ)
ENTZUMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> Hiru ariketa dauzka. Hirurak egin behar dira. Hiru entzungai eta guztira 25 galdera. Balio berekoak (0,8 puntu). Gainditzeko, 13 erantzun behar dira zuzen. Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko. Entzungaien iraupena guztira: 15 min gehienez. 	40-45 min	20	10

■ **Irakur itzazu** ariketa bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.

1. ariketa: aukeratu erantzuna

Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza sailburuordeari Emakume Nekazarien Estatutuaz egindako elkarrizketa.

Entzuten hasi aurretik 2 min dituzu galderak irakurtzeko.

- Lehenengo entzunaldia bukatu eta gutxira, bigarren aldiz entzungo duzu.
- Bigarren aldiz entzun ondoren, 1 min duzu ariketa amaitzeko.

Nahi duzunean hasi erantzuten.

Nola markatu erantzun zuzena?

- a)
- b)
- c)

Eta oker markatu baduzu?

- a)
- b)
- c)

- Zer berritasun dakar estatutu honek aurrekoarekin alderatuta?**
 - Emakumeen parte-hartzea sustatzen da, politiketan ezer zehaztu gabe.
 - Oraingo neurriak politiketan nola sartu zehazten da.
 - Genero-berdintasuna sustatzen da, orain arte egindakoa baztertuta.
- Zer esan nahi du titulartasun partekatuetan?**
 - Baserriaren titulartasuna gizonarena dela eta esplotazioarena emakumearena.
 - Esplotazioaren titulartasuna gizonarena dela eta baserriarena emakumearena.
 - Baserriaren titulartasuna zein esplotazioarena gizon-emakumeena dela.
- Zer gertatzen zen lehen maiorazkoaren ondorioz?**
 - Sarritan emakumea baserriaren titulartasunetik kanpo geratzen zela.
 - Esplotazioa emakumearen izenean egon arren, gizona zela nagusi.
 - Harrigarria izan arren, emakumeen titulartasuna handiagoa zela.
- Zeri emango dio lehentasuna estatutuak, diru-laguntzak banatzeko unean?**
 - Emakumeek titulartasuna duten baserriei eta ustiapenei.
 - Diru-laguntzetan desberdintasunik ez egiteari.
 - Lehen sektorea bultzatzeko programei.
- Sailburuordearen iritziz, zertan izan da garrantzitsua emakumearen egitekoa baserrian?**
 - Produkzio-arloan, baina baloratu gabea antolaketa-lanetan.
 - Baserriaren zein baserriarren garapen profesionalen.
 - Antolaketa-arloan, baina profesionaltasun-arloan baloratu gabea.
- Zer egiten du estatutu honek belaunaldi berriek baserrietan jarraitzeko?**
 - Eremuaren arabera titulartasuna gizonari edo emakumeari eman.
 - Baserrietako lanak emakumeen eta gizonen artean bidezkoago partekatu.
 - Emakumeak pairatzen zuen bidegabeko egoerari erantzuna eman.
- Sailburuordearen esanetan, zer falta zaio estatutu honi?**
 - Emakumeei eta gazteei lotutako lan luzea egitea.
 - Gizonezkoei ere garrantzia ematea.
 - Gazteentzako eta emakumeentzako diru-laguntza gehiago ematea.

2. ariketa: lotu hitza dagokion esaldiarekin

Insignis pinudiari buruzko elkarrizketa entzungo duzu jarraian bi aldiz.

- Entzuten hasi aurretik 1 min daukazu esaldiak irakurtzeko.
- Lehenengo entzunaldia bukatu eta gutxira, bigarren aldiz entzungo duzu.
- Bigarren aldiz entzun ondoren, 1 min duzu ariketa amaitzeko.

Nahi duzunean hasi erantzuten.

Nola markatu erantzun zuzena?

Hitzak	1	2	3	4
Esaldiak	D			

Eta oker markatu baduzu?

Hitzak	1	2	3	4
Esaldiak	✗			
	B			

Ezkerreko zutabeko hitzak ordenatuta daude; hau da, entzungaian agertuko diren ordena berean daude.

1.	Pinu beltza.	A.	Bere hazkundearen ondorioz hainbat pinu lehortzen dira.
2.	Kolore marroixka.	B.	Txikiagoa da, urteko kimuekin bakarrik irauten baitu pinuak.
3.	Azikula.	C.	Landatu aurretik ez dago neurtzerik ondoak eragin lezakeena.
4.	Egurra.	D.	Onddo batek eraginda erortzen zaio pinuari.
5.	Hazkundera.	E.	Ez da konponbidea pinu helduagoen kasuan, baina gazteen kasuan lagungarria izan liteke.
6.	Hezetasuna.	F.	Euskal Herrian nagusitu egin da.
7.	Onddoaren inokulua.	G.	Pinua gaixo egoteak ez du horretan eragin zuzenik.
8.	Bakanketa.	H.	Pinua gaixotu delako seinalea da.
9.	Kaltea.	I.	Onddoa behar bezala garatzeko ezinbestekoa.

■ Idatzi dagokion hizkia ondoko laukietan:

Hitzak	1	2	3	4	5	6	7	8	9
Esaldiak									

3. ariketa: aukeratu erantzuna

Ondoren, bi aldiz entzungo duzu aurreko Arartekoari, Iñigo Lamarkari, egindako elkarrizketa.

- Entzuten hasi aurretik 2 min dituzu galderak irakurtzeko.
- Lehenengo entzunaldia bukatu eta gutxira, bigarren aldiz entzungo duzu.
- Bigarren aldiz entzun ondoren, 1 min duzu ariketa amaitzeko.

Nahi duzunean hasi erantzuten.

Nola markatu erantzun zuzena?

- a)
 b)
 c)

Eta oker markatu baduzu?

- a)
 b)
 c)

1. Zer helburu jarri zion Arartekoak bere buruari?

- a) Administrazioari Arartekoaren erabakiak betearaztea.
b) Herritarren artean erakundea oso ezaguna zenez, eraginkorragoa izatea.
c) Baliabideak ahalik eta ondoen kudeatzea etekin handiena lortzeko.

2. Zer balorazio egiten du Lamarkak?

- a) Helburuak bete arren, Administrazioaren errekonozimendua falta dela.
b) Hasieran jarritako helburu gehienak bete egin direla.
c) Jarritako helburuak nolabait bete direla, baina asko dagoela egiteko.

3. Zer da Arartekoaren zeregina?

- a) Kexak aztertu ondoren herritarrak aholkatzea, ebazpenik eman gabe.
b) Herritarrengandik jasotako kexak aztertu, bideratu eta ebaztea.
c) Administrazioiko goi-ordezkarari izanda, Legebiltzarra herritarren kexetatik babestea.

4. Nola helaraz diezazkiokete herritarrek kexak Arartekoari?

- a) Hiriburuetakako bulegoetara joanda eta Internet edo posta bidez .
b) Internet eta korreo elektronikoa dira bide bakarrak.
c) Administrazioiko edozein bulegotara joanda eta Internet edo posta bidez .

5. Zer neurritan hartzen ditu kontuan Administrazioak Arartekoaren espediente zehatzak?

- a) Ehuneko ehunean, betetzera behartuta dagoelako.
b) Ebatzitako espedienteen erdietan gutxi gorabehera.
c) Gomendioak baino ez badira ere, neurri handi batean.

6. Zer neurritan betetzen ditu Administrazioak espediente bereziak?

- a) Zehatzetan baino gutxiagotan, ez duelako jaramonik egiten.
b) Bileretan borondate ona erakutsi arren, ez ditu gomendioak betetzen.
c) Ez dago datu zehatzik, baina gero eta gehiago entzuten du.

7. Zer da Administrazioaren printzipioa?

- a) Herritarren kontrako legez kanpoko jarduerarik ez egitea.
b) Legeak herritarren alde interpretatzea.
c) Legeak bere intereserako interpretatzea herritarren aurkako auzietan.

8. Nolakoa izan behar du Arartekoak, legearen arabera?

- a) Guztiz independentea eta inpartziala.
b) Administrazioiko beste sail bat denez, ez erabat independentea.
c) Legebiltzarkideengandik independentea, inpartziala izan ez arren.

9. Zer gomendatzen dio Lamarkak Ararteko berriari?

- a) Bere jarrera Legebiltzarraren erabakien arabera izatea.
b) Eguneroko lanean sinesgarritasuna erakustea.
c) Legebiltzarkideak baino ez konbentzitzea, haiek aukeratzen baitute.

■ **1. ariketa:** aukeratu erantzuna.

■ **Entzungaia:** «EMAKUME NEKAZARIEN ESTATUTUA»

1.	B	2.	C
3.	A	4.	A
5.	C	6.	C
7.	A		

■ **2. ariketa:** lotu hitza esaldiarekin.

■ **Entzungaia:** «*Insignis* pinua»

Hitzak	1	2	3	4	5	6	7	8	9
Esaldiak	F	H	D	G	B	I	A	E	C

■ **3. ariketa:** aukeratu erantzuna.

■ **Entzungaia:** «ARARTEKOA»

1.	C	2.	B	3.	B
4.	A	5.	C	6.	C
7.	B	8.	A	9.	B